

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 6026

*EBAZPENA, 2017ko abenduaren 1ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita sinbologia frankista ezabatzeko 2017. urterako diru-laguntzen eskabideei buruz ebatzitakoa.*

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2017ko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez, sinbologia frankista ezabatzeko diru-laguntzen deialdia egin zen, 2017. urterako.

Aipatutako deialdiari buruzko ebazpenaren 13.4 artikuluan xedatutakoaren arabera,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean agertzen diren erakunde onuradunei han zehazten diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Bilbao, 2017ko abenduaren 1a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,  
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

2017ko abenduaren 15a, ostirala

## ERANSKINA

Erakunde onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Larrabetzuko Udala	Gaztelumendiko gurutze frankista eraistea	2.676,00 euro
Amurrioko Udala	Plaka frankista bat kentzea Goikolarra auzoan	5.434,45 euro
Legutioko Udala	Ikur frankistak kentzea	1.743,27 euro
Vitoria-Gasteizko Udala	Ikur frankistetan esku hartzea	600,00 euro
Guztira		10.453,72 euro